



BARREN

TOKIKOM

# Auzolanaren sasoia



Arg.: Haritz Arrieta

**basquestay**



[www.basquestay.com](http://www.basquestay.com)

[info@basquestay.com](mailto:info@basquestay.com)

606 747 756

Apartamentu baten jabe bazara, alokatu eta diru iturri bilakatu



## MADDALEN BERGARA

Odontologoa

RPS233/13

**A**ldaz hortz klinikako lantaldeak, profesionaltasunaz eta teknika aurreratuez gain, **gertuko tratu**a eskaintzeko ahalegin berezia egiten du. Hurbiltasunez eta konfiantzaz, zure aho osasuna zaindu nahi dugu. Kasu guztietarako, **odontologo zailduen eskarmentua** zure esku daukazu.

Ume, gazte, heldu eta adinekoak zatozte klinikara lasai. Galdu beldurrak. Etxetik gertu, zure hortzak konfiantza osoz zaindu, sendatu eta konponduko ditugu. Eskatu zure kasuaren gaineko argibideak.

Aldaz hortz klinikak tratamendu aurreratuetan aplikatutako **punta-puntako teknologia** eskaintzen dizu.



Ohiko hortz tratamenduak eskaintzeaz gain, honako arloetan gara adituak:

- Ortodontzia
- Implantologia
- PADI (umeen aho-osasun zerbitzua)



**943 366 377**

San Bartolome, 22  
Elgoibar 20870  
[www.dentalaldaz.com](http://www.dentalaldaz.com)



ABEL ARRIAGA

*“Gure ardura ere bada irakurtzen duguna galbahetik pasatzea, kritiko izatea”*

**P**rentsa idatzia hizpide hartuta nator oraingoan, Andoitz. Askotan hitz egiten da gure kioskoetako egunkariak notiziak emateko duten moduari buruz. Zer kontatu eta nola kontatu? Gai konplexua da, subjektibitatez bete. Izan ere, hein handi batean, kazetariak beraiek dira notizia zer den eta zer ez erabakitzen dutenak. Adibidez, lapurtarrentzat ohikoa da eskura dituzten egunkarietan, Algeria, Txad edo-eta Gineako albisteak irakurtzea. Gipuzkoarroi berriz, orokorrean, Afrikatik berri gutxi iristen zaizkigu, baina ia egunero irakurtzen ditugu, Argentina, Venezuela edo-eta Mexikotik datozenak. Elkarrengandik hain hurbil bizi arren, albistearen pertzepzio oso ezberdina daukagu, lekuan lekuko prentsaren irizpideen arabera.

Kazetaritzaren printzipio saihestezinak egia, independentzia

eta objektibitatea omen dira. Independentzia (edo dependentzia) mailaren arabera, gehiago edo gutxiago, egia erdiz betetako prentsa interesatua aurkituko dugu kioskoetan. Kazetaritza objektiboan, berriz, nik ez dut gehiegi sinesten. Hala ere, idazlearen subjektibitatea bera baino larriagoa iruditzen zait irakurleon pasibitatea. Idatzizko transmisioan azken kate-begia gu izanik, gure ardura ere bada irakurtzen duguna galbahetik pasatzea. Kritiko izatea.

Mariano Ferrerri aspaldi entzuna diot, telebistarekin egiten dugun bezalaxe, prentsarekin ere zapping-a egin beharko genukeela: asteko egun bakoitzean, egunkari ezberdin bat irakurri alegia. Gaur egun Internetekin, egunean bizpahiru agerkari digital gainbegiratzea eskura daukagu. Ez da ariketa txarra, batez ere, begirada kritiko batekin egiten bada.



ANDOITZ AGIRREGOMEZKORTA




*“Askotan, EITBko albistegixetan, ez dakit Madrilleko telebista bat dan ala Bilbotik dabizen”*

**A**bel, hau irakurritta konfesio bat egin bihar dizut: *Libertad Digital* agerkarixan irakurle amorrara naiz. Ez da berez albistien ikuspegi desberdin bat izatiarren, muturreko iritzixak irakurtzia dibertigarria suertatzen jatalako baizik.

Argi daukat kazetaritza objetiborik ez dagola. Garrantzixia zein gairi eman nahi diozun erabakitzen dozun momentutik hasita subjektibua zera. Eta ezin da beste modu batera izan, pertsona geran heinian gure prismatik ikusten baitogu guztia. Pasibuak gera irakurriak eta pasibuak dia askotan kazetarixak eurak ere. Askotan latan sartutako albistiak eskeintzen dizkigute. Batian edo bestian irakurri, komak ere errepikau eitten dia. Jatorritik iritsi jakuen testua aztertzeke, kontrastatzeke eta aldatzeke astirik ez dabela euki di-

rudi askotan. Astirik ala interesik ez?

Estatuan eragin hori neuk ere ikusten diot prentsari, are eta haundixagua telebistari. Askotan EITBko albistegixak ikusten ditudenian ez dakit Madrilleko telebista bat dan ala Bilbotik dabizen; tente aurkezteko ohituria ere kopiau dabe. Kolonia izandako herrialdien informazioa aipatu dozu, baina horren urrutira junbe, hemen danok dakigu Madrilleko edo Bartzelonako alkatiak zeintzuk dian. Zein da Donibane Garaziko auzapeza? Diozun bezela gaur egunian Internetek interesa sortzen digun informazioa iristeko aukeria ematen digu. Aukera hori baliatzen dogun ala ez, hori beste kontu bat da. Herriko komunikabidietara etorritta bigarren konfesio bat: Ainara Argoitian BARRENeko erreportajjak plazer haundiz irakurtzen ditud, kalidade itzela daukela iruditzen jata.



ARGITARATZAILEA:



Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR - 943 744 112 - [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)  
[www.barren.eus](http://www.barren.eus)  
 Publizitatea: 943 743 704 - [barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

BARRENEk bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEk ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitako enantzikizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainara Argoitia **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia, Oier Narbaiza **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio, Leire Alberdi **MAKETATZAILEA** Zalao Amaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Javi Muñoz, Rafa Furnier, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Eider Iriondo, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Enetz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Soraluze. **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

LAGUNTZAILEAK:



**elgoibar**  
1821-2021



Gipuzkoako Foru Aldundia



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARRENEk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzikizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ► HERRIA OINEZKOENTZAT, MESEDEZ.

Herritarrok oso kezkatuta gaude azkenaldian, gure herriko kaleetan ibiltzea ekintza arriskutsu bilakatu delako. Edozein momentutan, pasiaran gabiltzala, elizatik irten eta plazara bidean goazela, 6-8 haur inguruk aurrean hartuta eramaten gaituzte. Beraien patinete eta bizikletekin lasterketan ari direla, izugarriko abiaduran amildu eta kolpatzen gaituzte, paretik kentzeko aukerarik eman gabe.

Haur hauek, Leku Eder parkeko aldatik indarra hartuz jaitsi, eta gelditu gabe iristen dira Errosario kaleraino, San Bartolome kalea abiada izugarrian gurutzatuz. Sekulako susto eta kolpe ugari jasoak ditugu jada. Gutako batzuek lurrean amaitu dugu, beste batzuek berriz ambulategian.

Gure galdera honakoa da; gure kaleetan arrisku hau bizi behar izateak, pertsona nagusientzako batez ere, zentzurik ba al dauka? Nolatan jotzen dugu normaltzat egoera hau?

Oinezkoentzako kaleei parke erral-

doi baten erabilera emateak, zentzurik ba al dauka? Eta non dago herritarren eskubideekiko begirunea?

Orain arte gertatu dena ikusita, argi dago ez direla gurasoak izango egoera hau moztuko dutenak. Beraien ardura izanik ere, beste alde batera begiratzen baitute. Gure nagusiek beldurrez igarotzen dira kale horietatik, eta, araurik jarri ezean, egoera larriago bilakatuko da.

Neurriak jar ditzagun mesedez, norbaitentzat beranduegi izan aurretik.

M.C.A.

### ► GAZTEOK ETA ETXEBIZITZA

Gaszte problematikak lantzeko helburuz osatu genuen Jaiki, eta ikasturte berrian ere gogotsu gabiltza. Udan feminismoaren gaiari heldu bagenion, udazkenean etxebizitzaren gaia izango da gure jardueraren ardatza, beste zenbait lan ildo baztertu gabe.

Izan ere gazteoi zuzenean eragiten digun arazoa da etxebizitzarena herri honetan. Teorian eskubide gisa onartua izanik ere, praktikan ongi dakigu etengabe urratua dela, eta ukazio hori isi-

lean pairatzera garamatza sistema kapitalistak. Hain justu ere herritarren oinarriko eskubideen gaineratik jartzen du beste behin gutxi batzuen aberasteko eta jabetzarako aukera.

Elgoibarko egoerari dagokionez ere gordintasuna nabaria da: 732 etxe huts dauzkagu herrian (Eustat, 2011) baina azken urteetan eraikitzen jarraitu da etengabe, betikoen negoziatorako. Alokairuen eskaintza berriz oso txikia da, eta prezioak ez daude herritarren eskura, are gutxiago gazteoi dagokionez. Zer esanik ez etxe bat erostez! Bizi osorako lotura bankuarekin, soka lepoan.

Honenbestez, uste dugu garaia dela Elgoibarren gaszte perspektibatik gai honi heltzeko. Batetik etxebizitzaren problematika mahaigaineratu nahi genuke herrian, egoera salatuz. Baina hortik abiatuta inguruan dauzkagun bestelako esperientziak ere ezagutu nahi genituzke, azken pauso batean geure alternatiba propioaren eraikuntzari ekiteko.

Jaiki gasztiok!

Jaiki



## Jose Garayalde Etxezarreta

**Baratza zen zure ametsa  
zure gustuko gordeleku  
hainbeste denbora pasatu duzun lekuan  
goxo-goxo deskantsatu.**

2015eko urriaren 26an hil zen,  
92 urte zituela. Sendiak bihotzez  
eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara  
agertu izana ere.



## Udaleko 2016ko egutegia osatzeko lehiaketara 146 lan aurkeztu dituzte aurten

Elgoibarko Udalak Ongarri argazkilari elkartearekin lan-kidetzan, Udaleko 2016ko egutegia osatzeko argazki lehiaketa antolatu du aurten ere. Elgoibarko kultura, artea eta ondarea gaia aintzat hartuz aurkeztutako argazkiak 146 izan dira. Partaideak, berriz, 31 lagun izan dira: 21 gizonetzko eta 10 emakume.

Udaleko eta Ongarri elkartekoek osatutako epaimahaiak 12 argazki aukeratu ditu egutegirako eta saridunak hauek izan dira: Cristina Lopez (2 argazki), Oier Ramos, Gurutze Ariznabarreta (3 argazki), Eulogio Mancebo, Miguel Angel Gutierrez, Manuel Sanchez, Antonio Curbelo, Vicente Guinea eta Maria Exposito. Egutegiaren aurkezpena eta sari banaketa abenduaren 16an izango dira

### Marrazkiak

Bestalde, Herri Eskola eta Ikastolarekin elkarlanean egutegirako marrazki lehiaketa antolatu du Udalak eta LH5eko 110 ikaslek hartu dute parte. Epaimahaia Udal ordezkariak



eta Gemma Monreal margolariak osatu dute eta hauek dira sarituak: Luzia Arriola, Ihintza Gonzalez, Markel Goenaga, Aritz Vallejo, Naroa Rodriguez, Xabi Goñi, Danel Carril, Eneko Calomarde, Iraitz Pedroche, Jone Navarro, Irati Uzquidun eta Helene Ortega.

## Herriko artisauen azoka izango da zapatuan Leku Ederren

Trinitate jaietako ohiko artisau azokaz gain, iaz egin zuten lehen aldiz herriko artisauak baino batzen ez zituen azoka. Aurtengoa bihar, zapatua, Leku Ederren izango da 10:30etik 14:00etara bitartean. Bitxiak, margoak, xaboiak, ehunekin egindako lanak, luthier lanak eta bestelako eskulanak izango dira ikusgai. Honako artisauen postuak egongo dira:

- Nagore Cid (Bitxiak),
- Amaia Erkizia (Bitxiak)
- Bitxibitxi (Bitxiak)
- Enara Gorostiza (Ehunak)
- Zugehina (Ehunak)
- Xarlem Creations (Ehunak)
- Juani Vergel (Eskulanak)
- Membrillera Perez (Eskulanak)
- Arturo Andrade (Lutheria)
- Emi Nogales (Margoak)
- Ana Mosacula (Xaboiak)

## Zineko bonuetan izena jartzeko eskatu du Udalak

Azken aldian zine bonu ugari heltzen dira atzeko aldean izenik gabe. Horrela, arduradunek ezin dute jakin zeinenak diren, hortaz ezin dute kontaktarik egin. Beraz, Kultura Sailak eskatu du zine bonuaren atzeko aldean erabiltzaileek izen-abizenak eta NAN zenbakia jartzea kontaketa errazteko.

### Gernikako azokan, Mausitxakoa gaztarik onena

Gernikan, urriko azken asteleheneko azoka ezagunean gaztarik onenaren saria eman diote Elgoibarko Mausitxa baserriko gaztari. 3.700 euro ordaindu ditu Mendata Berria Bilboko jatetxeak gazta erdiaren truke. Aurten Mausitxak irabazi duten laugarren gazta lehiaketa da eta urtea bukatu aurretik beste zenbaitetan hartuko dute parte.

### Saharako errefuxiatu kanpamenduetako diru-laguntza eskatu dute

Uholdeak izan dira orain dela gutxi Saharako errefuxiatu kanpamenduetan eta kalte larriak eragin dituztenez, Eibar-Sahara Elkarrekin eta Saharako Ilargi Gorriak diruz laguntzea eskatu dute kalte horiei aurre egiteko. Laguntza emateko Euskadiko Kutxako 3035 0023 99 0230081679 edo Banco Sabadelleko ES84-0081-0655-63-0001351540 kontuetan sar daiteke dirua.

## Elgoibarko 16 odol emailek intsignia jaso dute odola askotan eman dutelako



J oan den larunbatean Deba bailarako Odol emaileak elkartu ziren Eibarren eta odola askotan eman dutenei intsignia bana eman zieten. Orain arte 25 aldiz emandakoak, zilarrezko intsignia jaso dutenak, Eva Acuña, Xabier Ansola, Abel Arriaga, Lander Betelu, Jesus Maria Elizburu, Sugar Etxaniz, Inmaculada Loiola eta Manuel Roman dira. Urrezkoa jaso dute Elena Arregik, Valentin Barrenetxeak, Jose Martin Galarzak, Juan Jesus Ramosek eta Joaquin Rosariok. Gainera, Amaia Mujika eta Consuelo Prieto emaile bikain izendatu dituzte 60 aldiz odola eman duten emakumeak direlako. Elgoibarraren hurrengo odol-ematea azaroaren 13an izango da osasun zentroan 18:30etik 20:30era bitartean.

## Zabalik dago auzo alkate izateko hautagaitzak aurkezteko epea

Hastear da herri erdigunetik urrun dauden auzoetako – Sallobente-Ermuaran (San Lorentzo), Arriaga (San Antolin), Aiastia (San Migel), Idortorbe (San Pedro), Azkue (San Roke) eta Urruzuno– alkateen hautaketa prozesua Elgoibarren.

Lau urtez auzo alkate izan nahi duten bizilagunek beren burua aurkeztu ahal izango dute azaroaren 20a baino lehen. Horretarako, Udaletxeko harrerara joan beharko dute interesatuek eta han bertan sarrera agiria bete.

Hautagaitza aurkezteko 18 urtetik gorakoa eta ordezkatu nahi duen auzoan errolatua izan behar da. Hautagai bakarra dagoen auzoetan, zuzenean izendatuko da kargurako Udalak egoki baderitzo eta Alkatearen Dekretu bidez. Hautagai bat baino gehiago egonez gero, hauteskunde prozesua zabalduko da eta auzotarrei emango diete prozesuaren berri.

## Baserri-eskolara familia irteera izango da azaroaren 7an

Zestoako Sastarrain baserri eskolara familia irteera antolatu du Atxutxiamaikak azaroaren 7rako. Ekaingo margoak ikusi eta gero animaliak zaindu, garbitu eta haiei jaten ematea da plana. Izena emateko azken eguna azaroaren 3a da Elgoibarko Izarrako bulegoan, 943 741 626 telefono zenbakian edo [www.elgoibarkoizarra.eus](http://www.elgoibarkoizarra.eus) webgunean. 15 euro da irteera eta bazkideek 13 euro.

## Bertsolari txapelketako finaleko sarrerak salgai daude

Abenduaren 19an izango da Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finala Donostiako Ilunben 17:00etan hasita. Elgoibarko Izarran salgai dituzte finalerako sarrerak, baita autobus-txartelak ere. Abenduaren 5a izango da sarrerak hartzeko azken eguna Ubitarteko bulegoan, e-posta idatzita [elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus) helbidera edo 943 741 626 telefonora deituta. Sarreraren prezioa 20 eurokoa da eta autobus-txartelarena 10 eurokoa (8 euro bazkideek).

## Errigoraren saskiak salgai jarri dituzte Nafarroa Hegoaldeko euskalgintzari laguntzeko

Euskal Herria oinarri eta elkarlana lanabes dituen ekimen herritarra da Errigora. Nafarroa Hegoaldean, euskara ofiziala ez den zonaldean, eragin nahi du, eremu horretakoak propio diren produktuei Euskal Herrian bidea emanaz. Horretarako, produktu horiekin osatutako saskiak jarri dituzte salgai 50 euroren truke. 15 ekoizlek ondutako produktu sorta da eta Elgoibarren AEKn, Ikastolan edo Orbea tabernan egin daiteke eskaria. Bestalde, taldeko hainbat kide bihar, zapatua, goizez egongo dira Kalebarren plazan saskien eskariak jasotzen. Errigorako webgunean ([www.errigora.eus](http://www.errigora.eus)) ere eska daiteke. Saski hau erosita jaso ez ezik, eman ere egingo du jendeak. Izan ere, Nafarroako Hegoaldeko ekoizpenari bultzada emateaz gain, saskiaren balioaren % 25 han bertako euskalgintzara bideratuko da.

# Baserritik plazara



Baserritarren eta erosleen artean harreman zuzena bultzatu eta lurrari lotutako nekazaritza eredia sustatzeko sortu zuten Mendaroko Kontsumo Taldea, duela lau urte. Bitartekaririk ez dago talde honetan, eta horri abantailak baino ez dizkiote ikusten taldekideek. Izan ere, bitartekaririk gabe, baserritarrek prezio duinago batean saldu ditzakete produktuak, eta bestetik, etxetik gertu ekoiztako sasoiari sasoiko gainerako produktuak eskura ditzakete kontsumitzaileek. Elkarri laguntzeko konpromiso horren bidez, baserria eta kalea elkarrengana gerturatu eta elikadura osasuntsuago baten alde egiten dute kontsumo taldekoek. Orain, kontsumo taldearen berri emateko, hainbat ekintza antolatu dituzte astebururako, 'Mendaro sasoiari' izenpean.


- AINARA ARGOITIA -

Mendaron, hogeitabat familiak jasotzen dituzte gaur egun produktuak kontsumo taldetik. Talde horretako kide dira Arantxa Egaña, Dorleta Lazarobaster eta Ainara Egi-guren, kontsumitzaileak hirurak ere. Etxean jaten duten hori non eta zelan ekoizten jakiteari garrantzia handia ematen diote hirurek, jakin badakitelako elikadurak lotura handia duela osasunarekin. "Etxekoa jaten dugu, jateko ekologikoa eta kalitatezkoa", esan du Lazarobasterrek. Kontsumo taldea sortu aurretik ere ortuko produktuak etxean jasotzen zituen berak, garai bateko usadioan. 11 bat urte izango dira Altzola-Berazeta baserrikoekin zuzeneko hartueman hori hasi zuela eta gertutasun horrek ematen duen konfiantzak preziorik ez duela nabarmendu du: "Batetik, oso erosoa zen —eta da—, inora mugitu beharrik gabe etxean bertan jasotzen nituelako sasoiari sasoiko produkturik onenak, eta bestetik,

jaten dugun hori hemen bertan ekoiztutakoa izateak kalitatearen berme osoa du. Eskaera egiten nien, eta baserritik etxera ekartzen zidaten zuzenean ortuko jeneroa. Luxua zen!". Horregatik, kontsumo talderako izena ematea oso modu naturalean egin zuen.

Lazarobasterren antzera, ordura arte produktuak etxean jasotzen zituzten bezeroek osatu zuten hein handi batean hasierako kontsumo talde hura, eta ahoz ahokoari esker, poliki-poliki joan ziren familia gehiago batzen. Taldea hazi egin zen, eta Gipuzkoan indarra hartuz zihoazen Basherrri taldeen esperientzia baliatuz, ordura arte etxeraino eramaten zieten otzara hura baserritarrek plazara eramango zietela adostu zuten taldean. "Baserria plaza-ratzeko modua ere izan zen", esan du horren harira Paula Heras Altzola-Berazetako ekoizleak. Orduetik, eguaztenero-eguaztenero jasotzen dute poltsa, 19:00etan, Mendaroko udaletxe atzean,





eta banaketa momentu hori taldeari berari buruzko edozein gairi buruz jarduteko eta edozelako kezak argitzeko ere baliatzen dute taldekideek.

“Nik asko ikasi dut kontsumo taldean sartu ginenetik. Kalekoa naiz, eta nire antzera dendara joan eta urte osoan denetarik ikusten genuenontzat ikasteko aukera paregabea eskaintzen digu talde honek. Orain badakit urte sasoi honetan baratzak zer ematen duen eta lehen sekula ikusi eta jan gabeko barazkiak prestatzen ere ikasi dut”, esan du Ainara Egigurenek. Bat datoz taldekideak ere. “Nik lehen barazkia jan behar zelako erosten nuen, baina beti berdinerara jotzen nuen: bainak, porruak... Pepinoa erostea, adibidez, sekula ez zitzaidan burutik ere pasatuko”, esan du Lazarobasterrek. “Jakin ere ez pepinoarekin zer egin guk! Aurreko batean menbrilloa jaso genuen poltsan eta zer zen ere ez genekien, baina galdetu eta ikasi genuen hura zelan jaten zen ere. Errezetak ere prestatu zizkigun taldekide batek eta orain ezer ez da galtzen! Gustuko ez dugulako jan ezin dugun zerbait baldin badator, gustatzen zaionari eman eta kitto! Guretzat oso aberasgarria da hau, eta baserriarentzat oso lagungarria”.

### BASERRIKO LANAREN AITORTZA

Ortuak ematen duenaren arabera osatzen dituzte poltsak Altzola-Berazetakoek, eta hein batean, erabakia haiena da. Izan ere, kontsumo talde hauen filosofian, kartara lan egitea saihestu nahi da, eta dagoenean dagoena kontsumitzeko filosofia sustatu. Horrek baratzea planifikatzeko aukera eskaintzen die baserriarrei, eta bide batez, baserriarren bizi eta lan-baldintzak hobetu eta diru sarrera finko bat ziurtatzeko aukera ere bai. Baina horren guztia gainera, kalekoek baserrian egiten duten lanari aitortzen dioten errekonozimendua baloratzen dute ekoizleek, Paularen esanetan. Duintasuna da hitza. “Kontsumo taldekoek estimatzen dute gure produktua eta kontuan hartzen dute egindako lana, eta hori eskertzekoa da”.

Gertutasunak elkarren beharrak ezagutzeko bidea ematen die bi aldeei, gainera. Produktuei aterabide bat emateko modurik duinena dute zuzeneko salmenta baserriarrek, baina kontsumo talde honen oinarrian hori baino gehiago dago. Izan ere, baserriko lana ezagutzeko aukera ere badute kontsumitzaileek. Baserrietara bisitak antolatzen dituzte aldiro-aldi, eta era horretan jaten dutena nola lantzen duten ikusteko aukera ere izaten dute. Era berean, auzolanak ere antolatzen dituzte, uzta biltzeko sasoiak batik batik. Duela gutxi, esaterako, babak batzen jardun dira Altzola-Berazetan, auzolanean. “Oso esperientzia polita izan da. Gure seme-alabek zorionez gertuko dute baserriko bizimodua, baina, hala ere, gure alabak babak non hazten ziren ere ez zekien. Ez zekien lurpetik atera behar zituen, arbolatik bildu behar zituen edo zer. Baserrikoei lagunduaz, izugarri ikasten dugu”, esan du horren harira Lazarobasterrek.

Gaur egun, bederatzi baserriar dira Mendaroko Kontsumo Taldean sartutakoak, eta sare horren bitartez, barazki eta arrau-

## Mendaro sasoiak

### EGUENA, AZAROAK 5

19:00 Jakoba Errekondoren hitzaldia eta liburuaren aurkezpena. Trinitate basilizan.



### ZAPATUA, AZAROAK 7

10:00-14:00 Bigarren eskuko eta truke azoka.

11:00 Umeentzako ekintzak.

12:00 Heziketa bizikletaz, MTEren eskutik. Bizikleta eta kaskoa eraman.

14:00 Herri bazkaria. Kus-Kus-a Frontoian.

### DOMEKA, AZAROAK 8

10:00 Herri gosaria. Hemen bertako produktuekin. Kilimon elkarteak.

11:30 Garagartza ezagutuz ibilaldia.

Bazkarirako eta gosarirako izen-ematea:  
Morroskilon eta Txirristakan.

ANTOLATZAILEA:  
Mendaroko kontsumo taldea.

PARTE HARTZAILEAK:  
Arno Guraso Elkarteak, Mendaroko ikastola,  
MTE, Gaztelekua, Saharaiarrak eta  
Errefuxiatuen aldeko taldea.

tzez gain, oilaskoak, txahal-okela, bildotsa, ogia, ardi eta behi gazta, esnea, jogurtak, ardoa, sagardoa, sagar-zukua, pasta eta mermelada jasotzeko aukera ere badute bezeroek, enkarguz. Era berean, Euskal Herrian ekoizten ez diren produktuak eskuratzeko aukera ere bada taldean. Valentziako nekazari bati, adibidez, larranjak eskatzen dizkiote, taldetik eskaera bateratua eginez.


OHARRA: Elikagaiz betetako poltsa asteazkenetan jasotzen dute kontsumitzaileek, 19:00etan, Mendaroko udaletxe atzean, eta interesatuek ordu eta egun horretan banaketa lekura agertzea dute Mendaroko Kontsumo Taldekoekin harremanetan jartzeko biderik zuzenena. Nolanahi ere, email bat ere badute harremanetarako: [mendarokt@gmail.com](mailto:mendarokt@gmail.com).



## *Felisa Olazabal Garate*

2015eko urriaren 24an hil zen, 87 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Izan zarenagatik,  
erakutsi duzunagatik,  
ez zaitugu inoiz ahaztuko.***



I. URTEURRENA

## *Julian Iriondo Bergaretxe*

2014eko urriaren 23an hil zen, 94 urte zituela. I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, urriak 31, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***Horrenbeste hitzek,  
milaka oroitzapenek  
zugandik gertu egotea  
egiten digute.  
Eskerrik asko bihotz-bihotzez, aitxitxa.***

Zure familia



I. URTEURRENA

## *Mari Paz Rodriguez Ramila*

2014ko urriaren 27an hil zen, 86 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, urriak 31, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***Ezin zaitugu ikusi baina bai sentitu;  
lluntzean zerura begiratzean,  
han ikusten dugu zure izarra distira eginez.***

# Iparraldera begira

*Haizea dator Iparraldetik!* hori da Elgoibarko Izarrak eta Elgoibarko Udalak Ipar Euskal Herria gure herrira gerturatzeko antolatu duten egitasmoa. Egitasmoa herriko hainbat elkarte eta talderen (Sinuose, Morkaiko, Haritz EDT, eta Gazte Asanblada) elkarlanari esker antolatu da, eta Belaustegi jatetxeak, Txarriduna hotelak eta Etxe-Tar enpresak diruz lagundu dute. Kontzertu bat, bi hitzaldi, mendi-ibilaldia, eta kantu bazkaria egin dituzte orain arte, eta azaroaren 14an emango zaio amaiera ekimenari Ederlezi pastoralarekin eta Gaztetxean izango den musika-kontzertuarekin. Bien bitartean, ipar haizeak hainbat gai gerturatu ditu BARRENEko orrietara Elgoibarko eta Mendaroko jendeak hango berri izan dezan. Horretarako, euskarazko hezkuntzaren eta euskararen beraren egoeraz, Euskal Herria Zuzenean festibalaz, Euskoa monetaz, Lurrama azokaz eta Kanaldude herri telebistaz arituko gara gehigarri honetan.

## Hezkuntzaren ‘Seaskan’ euskaraz kulunka

**H**erri Urrats, Seaskak antolatu eta Senpereko lakuaren inguruan egiten den Iparraldeko ikastolen aldeko festa, ezaguna egingo zaio zenbaiti. Baina Seaska ez da haurrak loak hartzeko erabiltzen, haurren euskararekiko gogoia esnatzeko baizik. Ipar Euskal Herriko ikastolen federazioa da. 1969an, bospasei hurrekin hasi zen Seaskaren lehen ikastola Baiona inguruan: “Garaiko familiak oroitzen dira nola erotzat hartu zituen Iparraldeko gizarteak. Eskola bat, euskararen murgildurik... Pentsaezina zen! Euskara, etxeko kontua zen soilik”, esan digu Xan Aire Seaskako Euskaraz Bizi egitasmoko koordinatzaileak. Gaur egun, 3.300 ikasletik gora daude 34 ikastoletan, Haur Hezkuntzatik Batxilergora. Iparraldean D ereduaren eskaintzen duen egitura bakarra da. Seaskako zuzendari Hur Gorostiagaren esanetan, “euskararen familia transmisioa eten denean, ikastolak dira euskara transmititzeko tresna bakarretarikoa”.



ukiturik, beste sareetako eskolak euskarazko sailak zabaltzen hasi dira poliki-poliki, B ereduaren, azaldu du Airek. Gainera, B ereduko eskola arduradun nagusiek D ereduaren alde publikoki agertzeko ez dute beldurrik eta Lehen Hezkuntzara zabaldu nahiko lukete es-

perimentazioa. “Hori da, agian, Seaskak lortu duen garaipenik garrantzitsuenetarikoa: D ereduaren baliogarritasuna frogatzea, eta beste eskoletan horren nahia aktibatzea”.

### IKASLE GEHIAGO

Euskara oraindik ofiziala ez den

### EUSKARA BESTE ESKOLETARA

Ibilbide horretan euskarazko hezkuntza arautuaren motorra bihurtu da Seaska Ipar Euskal Herrian eta eragin handia izan du hezkuntzan. “Ikastolen arrakastak

lurrean Seaskak duen indarra eta azken urteetan lortutako arrakasta berriki plazaratu diren datuek argi utzi dutela dio Hur Gorostiagak. 2004/2005 ikasturtean, lehen hezkuntzan (sare publiko, pribatu eta ikastoletan) 24.229 ikasle ziren. 10 urte geroago, 2014/2015ean, 25.361 daude. 1.132 ikasleko hazkunde horren %80 ikastolek bereganatu dute (881 ikasle), eskola pribatuak behera egin dute (40 ikasle gutxiago) eta publikoan pixka bat gora (291 ikasle). Ikasturte hastapen honetan ere da-

*“Seaskak lortu duen garaipenik garrantzitsuenetarikoa da D ereduaren balioa frogatzea”*

tuak oso baikorrak izan dira, iaz baino 168 ikasle gehiago eskolatzen baitituzte.

Gaur egun, oraindik lan astuna da Ipar Euskal Herrian ikastola bat zabaltzea: 6/7 hurrekin, eta Falloux legea –diru publikoarekin edo eraikin publikoak emanez hezkuntza egitasmo pribatuak laguntzea debekatzen du– kontra dutela

zabaltzen ari dira ikastolak. Xan Aiereren esanetan “elkartasunerako eta auzolanerako bideak zabaltzen ditu egoera prekario horrek, baina Seaska maiz bultzatzen du euskararen lege-geriza eta ofizialtasuna erregulariki eskatzera: ikastolek geroan Iparraldean garatu nahi badute eta D ereduak aurrera jarraitu nahi badu beste eskoletan, legeak euskararen alde izan beharko du”. Bitartean, garai batean erokeria zena zentzuduntzat hartu dute orain. Ikastolek enpatia eta zilegitasuna lortu dute Iparraldeko gizar-tean. Esaterako, Frantziak itxitako eskola publiko baten egoitza berriz zabaldu dute Azkarateko herrian, bertan ikastola berria sortuz.

## ADMINISTRAZIOAREN TRABAK

Oztopoak oztopo hiru ikastola berri sortu ditu Seaskak eta datozten urteetarako aurreikuspenak ikaragarriak direla diote. “Hazkunde itzela izango dugu, baina arazoa izango da nola erantzun eskaera horri”, dio Gorostiagak.



## DATUAK

### Datu soziolinguistikoak

- Hitzunen galera (Euskal Herriko eskualde bakarra): %26 1991n, %21 2011n.
- Gazteen arloan gorakada: 16-24 urtekoak %11 1991n, %19 2011n.

### Euskarazko irakaskuntza

- B ereduak: eskola publiko eta katolikoetan murgiltzeak geroz-eta arrakasta gehiago du HHn.

- D ereduak: Seaskan Haur Hezkuntzatik Batxilergora.
- Seaskak izan du hazkundarik gehien.
- Gaur egun, B eta D ereduetan dabil haurren %37,3 Lehen Hezkuntzan eta %44 Haur Hezkuntzan.
- HH eta LH eskoletako %61k eskaintzen du euskarazko irakaskuntza (gehiena B ereduak).
- HH eta LH eskoletako %61k

eskaintzen du euskarazko irakaskuntza (gehiena B ereduak).

- Ikasleen %80 familia ez euskaldunetatik dator.
- Haurrak adinean aurrera joan ahala euskarazko irakaskuntzan jarraitzeko zailtasunak dituzte. B ereduak %77 geratzen dira LH4n, eta %42 DBH2n. D ereduak, %98 geratzen dira LH4n, eta 79 DBH2n.

Hala ere, frantses administrazioak ikastolei traba berriak ezartzen dizkie azken urteetan izan duten hazkundeari erantzunez. Seaskako zuzendariaren esanetan, “epe batez ikastolak garatzen utzi dituzte txiki geldituko zirelakoan. Baina geroz eta pisu handiagoa hartzen ari gara eta hori ez dute gustuko Parisko bulegoetan. Seaskaren indarra beti izan da elkartasuna. Ikastola txiki edo handi, denek batera egiten diote aurre zailtasunari”. Iparraldeko ikastolek diru iturriak elkartzen dituzte ibilmoldean, laguntza gutxien jasotzen dutenak besteen laguntzarekin sustengatzeko. “Eraikuntzetan ere, Herri Urratsen bidez, urte osoan denen beharrei erantzuten zaie eta ez ikastola zehatz bati ikastolen beste jaietan bezala”.

Parisek ukatzen dizkien irakasle postuak ere denen artean beren poltsikotik ordaintzerakoan ere elkartasunez aritzen dira. “Argi da traba ororen gainetik ikastoletan sekulako lana egiten dela, euskararen transmisioan, kultur transmisioan, gurasoen partehartzean baita herri dinamizazio mailan ere. Herri batean ikastola irekitzea, herri horren euskaldun bihotza berri martxan jartzea da. Eta Ipar Euskal Herriak ikastolen taupadak behar ditu, ahal bezain bat, geroz eta gehiago”.

Traben artean oihartzuna lortu duen kasuetariko bat 2012ko azaroan, Ziburuko Kas-karotenia ikastolarena izan da. Ixteko arriskuan egon bazen ere ikasleak bertan dira ikas-


turte honetan ere. Gatazka horretan Euskal Herri osotik izugarrizko laguntza jaso dutela jakinarazi digute Seaskan. Ikastolen Elkartea alboan izan dute, une gogorrenetan eta herrietako elkarteek ere bat egin dute berekin. “Balia dezadan aukera zuek emandako laguntza eskertzeko. Ziburuko ikastola elgoibartarrena ere bada! Norbanakoak ere eskertu behar ditugu denen ahaleginak batuz lortu baitugu ikastolak bizirik jarraitzea”. Hala ere, oraindik elkartasun beharra izango dutela esan du Hur Gorostiagak Frantziak ikastoletan diru publikoa inbertitzea debekatzen jarraitzen duen artean.

### ERRONKAK

Seaskak, baina, aurrera indarrez jarraitzea du helburu eta euskarazko hezkuntza Iparraldean eskura jartzea. “Haur bati ikastolan sartzea ukatuko bagenio, haur hori frantsesduna izatea kondenatzea litzateke”, dio Gorostiagak. Beraz, ikastola berriak irekitzeko lanean segituko dute. Hasieran hiru edo lau ikasle badira ere, ikastolen arteko elkartasunari esker egitura txikiak handitzea lortuko duten usteko dira. Bigarren hezkuntzan eta batxilergoan ere beharrak gero eta handiagoak dira. Hurrengo urteetako beste erronka bat Lanbide Heziketa euskaraz sortzea izango dela gaineratu du.

Etorkizunera begira, baina eguneroko jardunean euskarazko hezkuntzari eta euskarari bultzada emanez ari da, beraz, Seaska.

## Laguntzatik lankidetzara



Kooperatzea ez da ofizialtasunak Euskarari Iparraldean ekar diezaiokeen onura ukatzea, baizik-eta ofizialtasuna itxaron gabe oraindik egin dezakeguna adostea: tokian-tokiko xumetasunean oinarrituz, bertako aktoreak lankidetzan jartzea, bakoitzak bere heinean, arloan, euskararen biziberritzeari ekar diezaiokeena ulertzea, eta arrazoibidean partitzea.

Kooperatzea ez da Hegoaldeak Iparraldeari euskalgintzan ekarri laguntza agorrezina ukatzea, baizik-eta elkarrengandik ikastekoa duguna ikustea. Kooperatzea da Donostiako Pirattek Le-korneko EHZ festibalean lan eginik dakarten lilura, jakintza eta koherentzia. Edo Elgoibartik Iduzeko maskaradetara erromes joatea baino, ekialdeko euskal antzerki zaharrak herria eta hizkuntzari dakarrenaz iraunkorki harremantzea, gero mendebaldean egokitzea.

Kooperatzea ez da Frantziak eta Espainiak egin diguten hura ukatzea, baizik-eta konturatzea, bi horien kontragure energia aldebanatzen duguno, euskaldunok elkarri erdaretan bizkarra ematen dugula.

Kooperatzea da dogma bilakatu zaigunaren itzal-ertzei euskaraz begiratzten hastea, pentsatuz menturaz izpi horietan dela geratu gure imaginario kolektiboari dirdira berezia ekarriko lukeen mamia.

XAN AIRE

Seaskako Euskaraz Bizi egitasmoko koordinatzailea

*“Herri batean ikastola irekitzea herri horren euskaldun bihotza berri martxan jartzea da”*

# Euskal Herria Zuzenean jaialdia, hogeituz urtez kultur alternatibaren ikur

**E**uskal Herria Zuzenean musika festibala da, baina hori baino gehiago ere bada. Hogeituz urte bete ditu aurten, Euskal Herria musikaren munduan aitzindari egiten. Auzolanean eta enpresa handi edo instituzioen murriztatik libre sortu zen eta egin du aurrera urte guzti hauetan, euskara, euskal nortasuna eta kultura ardatz hartuta.

Euskal Herria Zuzenean urtero uztailearen 1etik gertuen dagoen asteburuan egiten den hiru eguneko musika jaialdia

da. 1996an sortu zuten Arrosan (Nafarroa Beherea), lau urte aurretik sortu zen Piztu elkartearen jarraipen modura. Arrosan egin zen lehenengo zortzi urteetan, harik eta 2003an Idauze-Mendira (Zuberoa) aldatu zen arte. Geroztik egin da Heletan (Nafarroa Beherea) eta Lekornen (Lapurdi), baina lau ardatzen gainean lan egin du beti: Ipar Euskal Herriko barnekaldea, jendez husten ari den zonaldea, dinamizatzeko dinamika zabal bat planteatzea hiru eguneko jaialdi baten inguruan; euskal nortasuna, kultura eta hizkuntza balioestea; garaian garaiko balioen bozemaile izatea eta lan militante eta laguntzailegoan oinarritutako antolakuntzaren bitartez, jatorri eta eremu sozial ezberdinetako gazteen arteko elkarlana bultzatzea eta loturak sortzea, bai eta Hego eta Ipar Euskal Herriaren ar-



teko “etena” txikitzea ere. Hain justu ere, EHZk langutzailagoari esker funtzionatzen du %99an eta gazteek euren gain hartzen dituzte antolakuntza-ardurak.

## SISTEMAREN KONTRAKOA

Euskal Herria Zuzenean irabazi asmorik gabeko elkar-tea da gaur, alderdi politiko, sindikatu, enpresa eta erakunde publikoekiko independentea, eta horixe du balioetan nagusi. EHZren antolatzaileek uste dute kontzientzia hartze nazionalerako tresna izan behar duela jaialdiak eta ideia berriak elikatzen, tokiko kultur ekoizpena sustatzen eta sistema kapitalistak “inposatutako” bizimoduaren kontrako alternatibak bilatzen jarraitu behar duela.

## BALOREAK

- . Euskal hizkuntza, kultura eta nortasuna babestea eta sustatzea.
- . Euskal presoekiko elkartasuna.
- . Diskriminazio forma guztien aurkako borroka (arrazakeria,

- sexismoa, homofobia...)
- . Eskubide zibil, politiko eta giza eskubideen aldarrikapena.
- . Ingurumenaren defentsa.
- . Alter mundualismoa eta internazionalismoa

- . kapitalismoaren eta gain kontsumoaren gizarte kritika.
- . Justizia sozialaren aldarrikapena
- . Kontra kulturaren aldarrikapena.

# “Festibala beti ikusi da gazteen nahia adierazteko tresnatzat”

► **PAULINE GUELLE** EHZKO PRESIDENTEA

Pauline Guelle, Pauen sortua da. 18 urte bete zituen arte ez zuen EHZ jaialdiaren berri, baina festan ez ezik gerora laguntzaile, zirkulazio taldean, musika topaketan eta komunikazioan aritu da. Aurten EHZko presidente kargua hartu du eta berak eman digu festibalaren berri.

♦ **Zer nolako balorazioa egiten duzue lehenengo jaialdi hartatik gaur arte egin duzuen bidez?**

Festibala antolatzen hasi ginen Iparraldean ez zenean horrelako beste eskaintza kulturalik, eta aintzindariak izan ginen. Antolatzen genituen nazioarteko kontzertuak, hitzaldiak... Frantziatik eta beste eskualdeetatik etortzen zirenei erakusteko zertan den Euskal Herria. Iaztik gogoeta berezia egin dugu eskaintza artistikoari eta kulturalari buruz. 20 urtez musika talde handiak ekarri ditugu prezio onean, baina hemen ere bada eskaintza zabala. Erabaki dugu gure balioekin bat egiten duten taldeak ekartzea: euskaldunak, gazteak, gure ideologia babesten dutenak...

♦ **Hogei urte bete dituzue alternatibaren ikur izaten. Zerk egin du festibal hau horren ondo errotu izana?**

Lehenik, Ipar Euskal Herrian festibalik ez zelako. Gero, urte guztietan gazteak heldu direlako biziki festibalari, haiengan edo bolondresengan oinarritu delako, eta belaunaldi guztiek begiz hartu dutelako. Urtez urte aldatu edo berri du antolakuntza taldea, eta festibala beti ikusi izan da tresna bezala non gazteek adierazten ahal zuten haien nahia, non eraiki-



tzen ahal zuten mikro-gizarte bat hiru egunez eta haien baloreak plazaratzen ahal zituzten. Hori da alternatiba: eraikitzea zerbait bertan eta tokiko jendearekin.

♦ **Independentea izatea da EHZren ezaugarrietako bat. Jaiadiak ez du laguntza publiko handirik eta ez du multinazionalen laguntzarik. Finantziarioarena nola egiten duzue?**

Lehen urteetan aski diru egin zen, baina geroztik behera joan da. Apustu egin genuen %15a baino ez ukaitea diru-laguntzen bitartez. Kontzertuak... egiten ditugu urtean zehar dirua biltzeko, helburua festibala autofinantziatua izatea baita. Hartu dugun bide berriarekin diru gutxiagorekin egiten ahal dugu festibala, gure baloreei leial izanda. Espero dugu heldu den urteetan autofinantziazio-iturrietan sakontzea eta bildutako dirua gainditzea. Laguntzaileetan badira enpresak, baina ez dute dirua ematen, baizik eta prestakuntzan lagundu.

♦ **Antolakuntza-lanak gazteen ardu-**

**ran dira. Sarri esaten da gaztea ekimen gutxikoa dela gaur. Nola egin duzue gazteak lanerako erakartzea?**

Festa polita delako biltzen dira gazteak. Hiru egunez lan egin beharra ez da karga, egiten duzuna egiten ahal duzulako lagunekin, baduzulako kontzertuak eta hitzaldiak entzuteko aukera eta baita adiskide berriak egiteko ere. Giro onak erakartzen du gaztea. Gainera, gure festibalaren baloreak ez dira hainbeste ikusten Euskal Herrian eta hori ere bada faktore garrantzitsua gaztea erakartzeko.

♦ **Zeintzuk dira zuen etorkizunerako erronka nagusiak?**

Segitzea eta lortzea, luzez, festibala ez izatea hiru eguneko baka-rik, baizik eta urte guztirako dinamika. Hitzordu ugari izaten ditugu urtean zehar: zine-emanaldiak, kontzertuak... asmoa da jendea urte osoan biltzea eta beti izatea laguntzaileak ondoan, jende berriarekin lan egiteak ziurtatzen duelako etorkizuna.

# Lurrama azoka, Ipar Euskal Herriko nekazaritzaren erakusleihoa

Ipar Euskal Herriko Laborantza Ganbarak antolatuta, Iparraldeko nekazal azokarik arrakastatsuen bitarteko ahal izango da azaroaren 6, 7 eta 8an, Biarritzen. Abereak, lurreko produktuak, tailerrak, hitzaldiak, janedana, animazioa eta beste hamaika gauza eskainiko ditu Lurramak. Baserritarrak eta kontsumitzaileak elkartuko dira Irati erakustazokan. Hamargarren edizio honetan, klima aldaketak nekazaritzarengan izan dezakeen eragina sakon aztertuko dute. Lurramak, azken batean, kalitatezko nekazaritza iraunkorrak dakartzan onuren inguruko kontzientzia zabaldu nahi du herritarren artean.



Ipar Euskal Herrian nekazaritzak eta abeltzaintzak sekulako garrantzia dute, batez ere barnealdean. Nekazaritza tradizionalak jakin du garai berrietara egokitzen. Laborariek, oro har, nekazaritza iraunkorraren aldeko apustua egin dute eta kalitatezko produktuak saltzen dituzte. Baserritarren eta kontsumitzaileen arteko harremana oso hestua da kasu askotan: han bertan ekoiztutako produktuak kontsumitzeko kontzientzia oso zabaldua dago jendearen artean.

## DATORREN ASTEBURUAN

Errealitate horren erakusleihoa nagusia Lurrama azoka dugu. Ipar Euskal Herriko nekazaritzaren egoera gertutik ezagutu nahi dutenek datorren asteburuan izango dute feria bisitatzeko aukera, azokaren 10. edizioa egingo baita Biarritzen (Lapurdi). Lurramaren bueltan hainbat ekitaldi egingo dira.

Euskal Herriko Laborantza Ganbarak 2006an ekin zion Lurrama azoka antolatzeari. Azoka honen bidez, nekazaritza iraunkorrak dakartzan onuren inguruko kontzientzia zabaldu nahi du. Azken batean, kalea eta baserria elkarrengana gerturatzeko saioak arrakastatsua da Lurrama feria. Laborarien eta

kontsumitzaileen beharrak eta interesak elkarren ondoan jartzeko ahalegina da.

Azaroaren 6, 7 eta 8an bisitatu ahal izango da Lurrama azoka, Biarritzeko Irati erakustazokan. Klimaren babesaren eta nekazaritzaren arteko harremana izango da feriak gai nagusia. Klima aldaketaren arriskuak eta etorkizunerako erronka nagusiak aztertuko dira. Era berean, laborantza iraunkor eta herrikoiak kutsadurarengan eragin positiboa duela erakutsi nahi dute Lurramako arduradunek. Azken batean, nekazaritza eredu honek natura eta lurra errespetatzen dituela erakutsi nahi dute.

## MINISTRO OHI BAT KLIMA ALDAKETAZ

Klima aldaketaz hausnartzeko, Pascal Canfin Fran-





tziako ministro ohia izango da gonbidatu berezia. Gaur egun gobernu kanpoko erakunde ekologista batean ari da. *Klima: laborantza herrikoia bantatzén dut* izenburuko hitzaldia eskainiko du.

Bestalde, aurtengo edizioan Normandia izango da herrialde gonbidatua. Hango ekoizpenak, janariak eta abereak ezagutzeko parada eskainiko dute hiru egun horietan.

*Klimaren babesaren eta nekazaritzaren arteko harremana izango da azokako gai nagusia hamargarren edizio honetan*

### LABORANTZA GANBARAREN BERRI

Lurramak, gainera, Euskal Herriko Laborantza Ganbarak azken urteotan egindako lanaren berri emango digu: *Herriko* ogi eta haragi markak, lurrak modu kolektiboan erosteko proiektua, kalitateari lotutako ekoizleak, energia berriztagarrien inguruko alternatibak...

Hamargarren urteurrena ospatzeko festa giroa sustatu nahi dute antolatzaileek. Dantza, ikuskizunak, musika, nazioarteko soka-tira txapelketa, Ezpeletako piper txapelketa edo ardi gazta txapelketa izango dira, besteak beste. Horrez gain, haurrentzako gunea lehengoa baino askoz handiagoa izango dela iragarri dute, tailer pedagogiko eta ludikoekin.



### INFORMAZIO PRAKTIKOA

- . Noiz: azaroak, 6, 7, 8
- . Non: Irati erakustazoka (Pitchot kalea, Biarritz, Lapurdi)
- . Azokaren ordutegia: 10:00-19:00
- . Gaualdi animatuak: 03:00ak arte (barixakuan eta zapatuan)
- . Sarrerak: 4,00€ (15 urtetik beherakoek, doan)
- . Aparkalekua: doan
- . Informazio gehiago: [www.lurrama.org](http://www.lurrama.org)

## Euskoa: diru ekologiko, euskaldun eta solidarioa



**E**uskoa Ipar Euskal Herrian erabiltzen den tokiko moneta da, orain dela bi urte sortutakoa. Ipar Euskal Herriko 600 saltoki, enpresa eta elkartek erabiltzen dute. Proiektuaren sortzaileen iritziz, moneta ekologiko, euskaldun eta solidarioa da.

Hainbat kontsumitzailek eta saltzailek sare bat osatu dute, Euskoa erabiliz salerosketak egiteko. Hori egitearekin batera konpromiso batzuk ere bere egiten dituzte: lekuko enpresei eta enpleguei sustengua ematea, euskara sustatzea eta tokiko ekoizpenak lehenestea.

Moneta hau eskuratzeko beharrezkoa da Euskal Moneta elkarteko kide izatea. Bazkideek kuota bat ordaindu behar diote elkarteari. Eusko bakoitza euro baten truke alda dezakete kideek, eta salerosketetan erabilitako kopuruaren %3 zein proiektura bideratzea erabakiko du.

Euskoaren erabilera sendotzen ari da. Salmenta puntuek (dendak, tabernak, jattetxeak, enpresak eta elkarteak) bereizgarria dute. Eguneroko hainbat produktu eskura daitezke euskoaren bidez. Salmenta puntu horiek elkartasuneko ekonomiaren alde jardun behar dute, ingurumena errespetatu behar dute eta euskararen erabileraren sustatu behar dute.

# “Ohartu gara Kanaldude euskarri ona dela lurraldearen animaziorako”

## ► MAIALEN DUGUINE KANALDUDE TELEBISTAKO KIDEA

Garazi aldean bizi den 21 urteko neska hau 14 urte zituela laguntzaile hasi zen Kanalduden eta orain bere bigarren urtea hasi du langile gisa. Komunikazio eta programazio arduraduna da eta Busti eta Hertzetan emankizunen koordinatzailea. Horrez gain, laguntzaileen sarea ere animatzen du eta guri Kanaldude hobeto ezagutzen lagundu digu.



### ◆ Zer da Kanaldude telebista?

Kanaldude tokiko web telebista parte-hartzailea da, osoki euskaraz ari dena. 1995 urtean bideo teknikari batzuek euskarazko hedabide bat sortu nahi zuten. Tokikotasuna atxikitzeko, modu parte-hartzailearen bidea hartu zuen Kanaldudek. Logoak ongi erakusten duen bezala hiru zutabetan oinarritzen da Kanaldude: euskara, lurraldea, parte-hartzailetza.

### ◆ Nolako programak eta emankizunak egiten dituzue?

Ez dugu aktualitatea beroan bero lantzen. Aldiz, edozein gai atzerapen pixka batekin lantzen dugu: kultura, laborantza, kirola, gizartea, politika... Askotariko formatuak proposatzen ditugu: erreportajeak, emankizunak, zuzenekoak. Gazteek haien emankizuna abiatu zuten iaz, Busti izendatua. Bestalde, ohartu gara Kanaldude euskarri ona dela lurraldearen animaziorako. Bideogintza erabil daiteke jende multzo batekin gai bat edo beste lantzeko edo geroari aurrez begiratzeko (Aldude 2030, Xiberoko laborantza bihar...)

### ◆ Zein lantalde zaudete Kanalduden?

Talde anitza da. Denetarik bada

eta gehienok denetarik dakigu egiten. Horrez gain, 60 laguntzaile aktibo ditugu urtean zehar hainbat ekitalditan parte hartzen dutenak. Proiektuen arabera, lantaldea egokitzen da.

### ◆ Nola ikusenezake Kanaldude?

Asteazkenero eduki berria hedatzen dugu [www.kanaldude.eus](http://www.kanaldude.eus) webgunearen bidez. Horrez gain, tokiko hiru telebistetan astero ordubeteko saioa hedatzen dugu: Iparraldean kokatua den TVPIN, baita Hamaika eta Xaloe telebistetan ere.

### ◆ Nolako harrera du zuen telebistak?

Uste dugu lurraldean presentzia azkarra dugula, bereziki Xiberua, Baxe Nafarroa eta Lapurdi barnealdean, hor direlako euskaldun gehienak eta gehien bat barnealdeko jendearekin lan egiten dugulako. Baina galdera horri erantzuteko, ikerketa bat ari garela momentuan egiten lurraldean. Urte

bukaeran, espero dugu argiago ikustea.

### ◆ Erronka edo programa berezirik aurreikusi al duzue aurrerantzerako?

Hertzetan musika emankizuna abiatu berri dugu Radio Kulturarekin partaidetzan. Desafio tekniko bat izan da. Hilabetero Euskal Herriko talde bati hitza emanen diogu eta kontzertu zati bat eskainiko dugu. Publikoari zabaltzen dizkiogu emankizunen grabaketak.

### ◆ Nola ikusten duzue etorkizuna?

Kasik 20 urteren buruan, iduritzen zaigu lortu dugula ezagupen bat. Lan taldea eta laguntzaileak motibatuak dira, gaiak eta horien lantzeko moldeak etengabe berritzen dira, euskarri bikaina da euskararen normalizazioaren prozesuarentzat... Hala ere geroa ahale araberakoa izanen da, urte batetik bestera negoziatzen baitira diru laguntzak eta partaidetzak.

## 'Menditerapia Chamonixen' saioak hasiko du Morkaikoren mendi emanaldi zikloa



**A**rkaitz Irureta, Joseba Elustondo eta Alberto Fernandez elgoibartarren *Menditerapia Chamonixen* izeneko emanaldiarekin hasiko da Morkaiko Mendizale Elkartek prestatu duen Udazkeneko Mendi Emanaldien Zikloa. Lanbroa tabernan izango da, azaroaren 5ean, eguena, 21:30ean hasita.

Emanaldi honetan, hiru elgoibartarrek ez dute eskaladaz eta mendiaz soilik berba egingo, beraientzat terapia modukoa izan zen bidaiaz baizik.

### June Loidi Espainiako eskubaloia selekzioan

Promesa mailako Espainiako eskubaloia selekzioak Sanlo kirol-taldeko June Loidiri deitu dio, azaro amaieran Polonian jokatu duen txapelketa batean parte hartzeko. Antolatzaileekin batera, Bielorrusia, Lituania eta Espainiako selekzioak lehiatuko dira. June Loidik Sanloko bi taldetan jokatzen du, Pneumax kadete mailako taldean eta jubentil mailan diharduen Tecnifuellen.



### Urrea eta zilarra Gasteizko Shuai Jiao txapelketan

Euskal Herriko, Valentziako eta Kataluniako kirolariek parte hartu zuten joan den urriaren 24an Gasteizen jokatu zen Shuai Jiao txapelketan. 75 eta 80 kilo arteko kategorian urrezko domina eskuratu zuen Igor Castañaresek eta zilarrezkoa Iñigo Arizagak. Wu-shua arte martzial txinarraren diziplinetako bat da Shuai Jiao edo borroka txinatarra.



## Emaitzak

### FUTBOLA

Haundi 2 - Martutene 1  
Texas Lasarteerra 2 - Elgoibar 3 (Erreg.)  
Tolosa 3 - Elgoibar 1 (Jubenilak)  
Elgoibar 0 - Ordizia 0 (A Kadeteak)  
Zestoa 0 - Elgoibar 1 (B Kadeteak)  
Elgoibar 2 - Aretxabaleta 0 (Oho. inf.)  
Aretxabaleta 3 - Elgoibar 0 (Inf. Txiki)  
Amaikak Bat 1 - Elgoibar 11 (Aleb.)

### ARETO FUTBOLA

Concepto Egile 3 - Quinto Sala 1 (Naz B)

### SASKIBALOIA

Goierri Verkol 45 - Viento Sur 57

### ESKUBALOIA

Lauko Elgoibar 20 - C.B. Kukullaga 31 (Senior nes.)  
Pulpo Zumaia 17 - Alcorta Forging Group 30 (Senior mutilak)  
Gabaz Elgoibar 34 - Amenabar zarautz 23 (Sen. mut.)  
Beristain Banaketak 36 - Saieko 33 (Jub. mut.)  
Ordizia 27 - Deca Elgoibar 47 (Kad. mut.)  
Pizzeria Marina 16 - Federopticus Ikus 7 (Inf. nes.)  
Aloña Mendi 20 - Hotel Txarriduna 15 (Inf. mut.)  
Eibar Eskubaloia B 13 - Murgil Eraikuntzak 37 (Inf. mutilak)  
Cometel Elgoibar 22 - Dario Bus Elgoibar 13 (Inf. nesak)

## Agenda

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 31  
10:00 Elgoibar - Eibar (Oho. inf.)  
12:00 Elgoibar - Ikasberri (1. kadete.)  
15:30 Elgoibar - Aloña-Mendi (Oho. jub.)  
17:30 Elgoibar - Alle Punta (Erreg.)  
Domeka, 1  
12:00 Elgoibar - Arrasate (Aleb.)

### SASKIBALOIA (Olaizaga kiroldegian)

Zapatua, 31  
16:00 Viento Sur Elgoibar - Zast Zarautz ZKE (2. probintzial maila)

### PILOTA (Ikastolako frontoian)

Barixakua, 30  
20:00 Lagunak 2 - Tartaloetxe (Nagusiak 3. maila)  
20:45 Lagunak - Mutriku (Gomazko paleta)

### ESKUBALOIA (Olaizagan)

Zapatua, 31  
10:00 Txarriduna - Zalla (Infantil mut.)  
11:15 Bankoa - Ereintza (Kad. mut.)  
17:45 Deca - Saieko (Kad. mut.)  
19:30 Alcorta - Bidasoa (Senior mut.)  
Domeka, 1  
10:00 Ikus - Aiala A (Inf. nes.)  
13:15 Astigarraga - Eibar B (Kad. nes.)

### ESKUBALOIA (IMHn)

Zapatua, 31  
11:00 Pneumax - Errotaberri (Kad. nes.)  
13:15 Astigarraga - EibarB (Kad. nes.)  
Domeka, 1  
11:00 Elgoibar - Pulpo (Aleb. mut.)  
13:15 Astigarraga - EibarB (Kad. nes.)

## Kilometro bertikalen Euskadiko Kopa Iñigo Larizentzat



Asteburu betea izan zen joan den astekoa mendi lasterkarientzat. Kilometro bertikalen Euskadiko Kopako azken proba puntuagarria jokatu zuten, urriaren 25ean, Arabako Asparrenan: Araia-Aratz kilometro bertikala. Gizonezkoetan Iñigo Lariz Azkue izan zen azkarrena, 36 minutu eta 26 segundoko denborarekin. Kopako sailkapen nagusian Aitor Osak lortu ditu puntu gehien, baina Araian egin zuten sari banaketara agertu ez zenez, araudia betez bigarren sailkatuari eman zioten Kopa, Iñigo Larizi. Emakumezkoetan Virginia Perez Mesonero gailendu zen Aratzen, eta Ainhoa Lendinez elgoibartarrak lortu zuten bigarren postua.

Larizek ez du bere sentitzen garaipena. "Osak lortu du puntuazio altuena eta argi dago ni baino askoz hobea izan dela aurtengo Kopan. Berea da meritua".

Osak hiru proba irabazi ditu eta Larizek bat, bigarren postu bat eta hirugarren bat lortu ditu.

### Lariz eta Maiora, bizkorrenak Azketa Erlo Erronkan

Aurreko egunean, urriaren 24an, Azketa-Erlo erronkan hartu baitzuten parte. *Azketatik Erloira igo al daiteke 10 minutuan?* Erronka horixe jo zion Euskadi Irratiko 'Hiru Erregeen Mahaia' saioko lan-taldeak Mendi Lasterkariak Euskal Selektzioari. Gizonezkoetan zazpi lagunek lortu zuten Azketatik Erloko tontorrera hamar minutu azpitik igotzea, eta Iñigo Lariz elgoibartarrak egin zuten denborarik onena: 8 minutu eta 23 segundu. Emakumeei dagokionez, 11 minutu eta erdi azpitik egin behar zuten igoera eta bik lortu dute erronka gainditzea, Maite Maiora mendaroarrak (10:20) eta Ainhoa Lendinez elgoibartarrak (10:49), hain zuzen ere.

### Korrikedadan parte hartzeko deialdia

Emakumeak korrika egitera animatzeko egitasmoa da Korrikedada. Elgoibarko Udaleko Berdintasun Sailak eta Kirol Patronatuak jarri zuten martxan iaz eta joan den irailean hasi zuten ikasturte berria. Kirol monitore batek gidatuta, atletismoaren munduan hasi nahi duten emakumeak parte hartzera animatu nahi dituzte antolatzaileek. Martitzen eta eguenetan egiten dituzte antxixika saioak Mintxetan, 19:00etatik 20:00etara bitartean. Kirol Patronatuko bazkideek hilean 13 euro ordaindu behar dituzte eta 17 euro bazkide ez direnek.

 Garazi Sampedro Arando  
RPS 169/15  
ERROSARIO  
HAGIN KLINIKA  
Errosario, 7  
Elgoibar  
943 743 679

Uzuri RPS 183/12  
MULTIÓPTICAS  
AUDIOLOGIA ZERBITZUAK  
OPTIKA  
San Frantzisko, 21 - Elgoibar  
Tel.: 943 740 359  
Ostolaza, 7 - DEBA  
Tel.: 943 192 192

Mari Jose Ruiz Porres  
Doktorea  
GINEKOLOGOA  
R.P.S. 82/15  
Madina Radiologia  
Toribio Etxeberria 4, 1 - Eibar  
Tel.: 943 202 857  
mj.ruizporres@gmail.com

leku edero  
horts klinika  
RPS 171/12  
Elena Herrero Lobo  
Aita Agirre Eparantza, 5  
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 530 053

federópticos  
ikus  
RPS 65/07  
San Bartolome, 10  
Tel.: 943 743 734

RPS 271/12  
 ainhoa  
fisioterapia  
Jausoro plaza, 6 behea  
Elgoibar  
943 531 953  
669 565 745

 aldaz  
horts klinikak  
RPS233/13  
Tel.: 943 366 377  
San Bartolome, 22  
20870 Elgoibar

fisio&más  
Fisioterapia aurreratua eta  
Kirol Berregokitzea  
  
Trenbide kalea, 13  
943 740 191 / 667 943 628  
www.fisio-mas.com  
RPS 172/18

CLINICA DENTAL  
ELIZPE  
HORTZ KLINIKA  
RPS 88/15  
Elizburu, 3 - SORALUZE  
Tel.: 943 752 567  
Astehelentetik ostiralean  
10:00-13:00 / 16:00-20:00  
e-mail: elizpe3@gmail.com

# “Ikaragarria izan da erronka pertsonal baten inguruan sortu den lagun giroa”

## ► IBAN FERNANDEZ MENDIZALEA

Iban Fernandez (Elgoibar, 1977) duela hiru urte eskas hasi zen mendian ibiltzen, Karakaten. Gaur egun, Karakaten egiten ditu Ehunmilak moduko mendi lasterketetarako entrenamenduak. Horrenbeste joan etorriren ostean, bere buruari erronka jarri zion: bederatzi buelta egitea Azkue-San Roke eta Karakate artean 12 ordu eta erdian. 20 minutu sobratu zitzaizkion.

- ASIER ORBEA -

### ◆ Nola sortu zitzaizun Azkue-San Roke eta Karakate artean bederatzi buelta egiteko ideia?

Ez da apustu baten ondorioz izan, nire buruari jarritako erronka baizik. Duela hiru urte hasi nintzen mendian ibiltzen eta ordutik Karakateko maldak erabili ditut entrenamenduetarako. Hala, G2handiak proba (88 kilometroko mendi lasterketa) prestatzen ari nintzela sei buelta eman nituen iaz, eta aurtengorako zazpi itzuli egiteko erronka jarri nion nire buruari. Ehunmilak ultratrailean parte hartu ostean, baina, indartsu nengoela-eta, bederatzi buelta egitea erabaki nuen.

### ◆ Bederatzi baino zenbaki borobilagoa da hamar.

Bai, horixe esan dit batek baino gehiagok. Erronka egun argitan egin nahi nuela da arrazoia, eta kalkulatu nuen argi orduetan bederatzi buelta eman nitzakeela. Laguntzera etorri behar zuen jendearengan pentsatuta egin nahi nuen erronka egunez, jaitsierak arriskutsuak baitira ilunetan.

### ◆ 12 ordu eta erdian egin nahi zenuen eta 20 minutu sobratu zitzaizkizun?

Bai. Primeran irten zen dena. Pentsa,



Iban Fernandez (goian, eskua altxata) Karakateko tontorrera egin zuen bederatzigarren igoeran lagunenez inguratuta ateratako argazkian.

aurreikusitako denborekiko aurrerapena generamanez, arratsaldeko bostak inguruan hamargarren joan-etorria egiteko aukera nuela ohartarazi zidan Joseba Elustondok. Xaxatu egin ninduen, erritmoa pixka bat bizkortuta hamabi orduan egingo nituela hamar bueltak. Neuk ere ikusten nuen aukera hori, burua eta giharrek jarraitzeko moduan neuzkan-eta. Afaritarako ordua jarrita geneukala erantzun nion, ordea, eta gainera jendea zain geneukan ailegaeran.

### ◆ Erronka pertsonala izan arren, lagun mordoia batu zaizkizu?

Ikaragarria izan da jaso dudan babesa eta erronka pertsonal baten inguruan sortu den lagun giroa. Kosta egiten zait sinestea zertan bihurtu den, nire beroaldi bat, horixe baitzen erronka. Konturatzerako 30 laguneko taldea nuen nire buel-

tan igoera eta jaitsieretan nire alboan egoteko prest. Krokis moduko bat egin behar izan nuen, bakoitzari zegokion buelta zehazteko.

### ◆ Zer sentitu zenuen lortu zenuela jabetu zinenean?

Izugarrizko poza, baina nigatik baino gehiago laguntzen eta animatzen izan nituen horienegatik. Igoeretan zein jaitsieretan alboan izan nituenak, familiakoak, nirekin ikasitakoak, mendiko lagunak, Karakatera ume eta guzti hurbildu ziren ikusleak... lagundu nauten guztiei eskerrak eman nahi dizkiet. Azken itzulian Cristiano Ronaldo bera ematen nuen, barren! Horrek egiten du handi istorio hau. Egongo da nik jarri dudan marka hobetuko duenik, baina zaila izango da nik izan dudan babesarekin egitea.

**LANA.....****Eskaerak**

Sukaldari laguntzaile edo etxe, portal eta elkarrekin garbitzen lan egiteko prest. 636 882 838

Nagusiak zein umeak zaintzeko edo taberna zein portalen garbiketarako egiteko prest. Nagusi ezinduekin eta elbarrituekin esperientzia daukat. 631 562 380

Garbiketa lanak egiten ditut orduka. 637 102 725 / 943 744 033

Adinekoak zaintzen edo garbiketari lan egiteko prest. 690 134 485

Nagusiak zaintzen ditut etxean zein egoitza edo ospitalean, arratsaldean zein gauetan. Gida baimena daukat. 631 343 232

Adinekoak edo umeak zaintzen edo garbiketari lan egiteko prest. 632 454 417

Adinekoak edo umeak zaintzen edo garbiketari lan egiteko prest. 631 748 977

Orduka edo interna lan egingo nuke, baita asteburuetan ere. 626 914 904

Umeak zein nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egingo nituzke. 602 818 946

Nagusiak zaintzeko prest, egunez zein gauetan. 638 338 816

Portaletako garbiketari egin edo nagusiak zainduko nituzke egunez, gauetan zein orduka. 632 771 519

Umeak zein nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egingo nituzke. Orduka edo etxean bizita. Tabernak eta portalak ere garbitzen ditut. 631 098 995

Umeak zein nagusiak zaintzen ditut eta garbiketari lanak ere egiten ditut. 943 748 899 / 685 724 861

Nagusiak zaintzeko, sukalde laguntzaile izateko edo garbiketari lanak egiteko prest. 661 064 027

Sukalde laguntzaile edo garbiketari zein nagusiak zaintzeko prest. 677 259 560

Nagusiak zaintzeko, sukalde laguntzaile izateko edo garbiketari lanak egiteko prest. 661 064 027

Adinekoak zaintzen edo garbiketari lanak egiten egingo nuke lan. Egun osoz nahiz orduka. 684 318 696

Pertsona euskalduna etxeko lanak orduka egiteko prest. 687 114 707

Umeak zein nagusiak zainduko nituzke orduka, baita garbiketari lanak egin ere. 663 331 119

Nagusiak zaintzeko zein garbiketari lanak egiteko prest. 686 077 316

**Eskaintzak**

Esperientzia duen zerbitzaria behar dugu Elgoibarko taberna batean. Bidali Curriculum: [elgoibarlan@hotmail.com](mailto:elgoibarlan@hotmail.com)

Enpresa mailako ingeles irakaslea behar dut. 688 639 371

Pertsona bat behar dugu LH3ko 3 umei frantses eskolara emateko. 620 578 702

LH5 eta DBH4rako klase partikularrak etxean emateko pertsona behar da. 617 386 198

Artezie makinetan edo CNC zentroetan esperientziadun ofizialak behar ditugu. Bidali curriculumak helbide honetara: 177 posta kutxatila. 20600 Eibar.

**ETXEBIZITZAK.....****Alokairua**

Babes ofizialeko etxebizitza salgai, prezio tasatuan (130.000€ inguruan). 2 logela, garajea, trasteleku eta igogailuarekin. 628 115 677

Familia batek bi logelako etxea hartuko luke alokairuan Elgoibarren. Gehienez 400 euro ordain ditzakegu. 637 207 806

Familia batek hiru logelako etxebizitza hartuko luke alokairuan Elgoibarren. 632 198 561

Etxe txikia hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. 632 175 172

Etxebizitza hartuko nuke alokairuan. 677 259 560 / 661 064 027

**GARAJEAK.....****Alokairua**

Garaje itxia alokagari Jausoro plazan. Prezioa 90€. Kotxe bakarrarentzat egokia. 699 812 566

Garaje itxi bat emango nuke alokairuan Elgoibarren, Leku-Ederren. 688 687 820

Garaje itxia hartuko nuke Bernardo Ezerran, Pedro Migel Urruzunon edo Maala inguruan. 636 275 639

**OSPAKIZUNAK .....**

1934an jaiotako bazkaria antolatuko dugu. azaroaren 7rako. 14:30ean Sigma jatetxean elkartuko gara. Hobe alde zurekin izena ematea bertara deituta. 943 748 531.

1985ean jaiotako bazkaria, azaroaren 14an, Sigma jatetxean. 12:00etan plazan elkartuko gara eta bazkaria 15:30ean izango da. Usua tabernan eman behar da izena eta 40 euroko ordainketa egin, azaroaren 1etik 10era bitartean.

Mila izenekoen bazkaria antolatuko dugu eta egun polit bat pasatzeko gonbitea da hau. Azaroaren 27an "Milagrosa" egunez 13:30ean kaperan elkartuko gara eta Txarridun bazkalduko dugu. Etorri nahi duenak azaroaren 20a baino lehenago deitu eta izena eman. 685 777 609 Mila Juaristi edo 685 777 609 Mila Tudanca.

**BESTELAKOAK.....**

Bikentzat Candy Pear erako karroa salgai. Prezio onean. 606 340 632

Duela bi aste, urriaren 2an, Aterpe taberna parean aurkitutako txirula bat ekarri digute. Galdu duena Barreneko bulegotik pasa daiteke jasotzera.



**P. M. Urruzuno kalea, 6 behe - Elgoibar**  
 ☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



**Bigarren eskuko etxe bat erosteko asmoa dut. Agiri arrunt bat eskatzeko aholkari zidaten eta eskatu dudanean, han bertan, ageri da indarrean dagoen jatorrizko eraikin karga bat. Karga hori akueduktu-zor bati dagokio. Ez dakit ziur zer den karga hori eta nigan eraginik izango duen etxebizitza erosiz gero.**

Akueduktu-zorra, teknikoki, landa-finkei uren arloan ezartzen zaien karga da. Bere finkarako ura hartu nahi duenak tarteko onibarretatik pasatzeko eta horretarako akueduktu aproposa eraikitze eskubidea da.

Era honetako akueduktu-zorrek ezin dira eraikinetarako esleitu. Beraz, pentsa genezake garai batean jatorrizko eraikinarena izan zela. Hau da, lurra lantzeko orubea zen hartan kokatutako jatorrizko finkarena. Zenbait kasutan etxebizitza eta patioetan egon daitezke hainbat zor, bide-zorra, esaterako, eragina izan dezakeena jabetzaren titularrarengan. Orduan legeak zehaztuko du etxebizitza edo lokal baten jabeak onartu beharko dituela obrak egiteko, bestelako jardueretarako edo egindako zein legearen arabera adostutako zerbitzu komuniterako beharrezko diren ezinbesteko zortasunak. Beti ere, komunitateak eragindako kalteak konpentsatzeko eskubidea izango du.

**Aholkua: Zure segurtasunerako eskatu erregistroan zortasuna transkribatuko duen agiri arrunt berri bat edo ziurtagiri bat.**

**ROSA Mª PINTADO:** Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749






Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.



Zorionak **gure surfistari** zure 10. urtebetetzean. Segi zure ametsak betetzen, 1.000 kilo muxu etxeko guztien partez.



Zorionak, **Nerea**, gaur 10 urte betetzen dituzu. Familia guztiaren eta, batez ere, Mikelen partez.



Zorionak, **Unai**, gaur 4 urte egiten dituzulako. Muxuak aitaxo, amaitxo eta Asierren partez.



Zorionak, **Ibon**, zure 4. urtebetetzean. Ondo pasatu maiztia eta patxo handi bat familia guztian partez.



**Maule**, zorionak, lau urte kristonak!




**Oihane**, gaur 7 urte bete dituzu!!! Zorionak maiztia, bai ondo pasako degula eguna.



Zorionak, **Igor!** Jadanik urtebete egin duzu! Muxu handi bat familia guztiaren partez.



Zorionak, **Ja-nire!** Asteartean 10 urte egin zenuelako. Mila muxu denon partez, bereziki Elenen partez.



Zorionak **Galder** zure zortzigarren urtebetetzean. Muxu handia familixakoen eta bereziki Naroaren partez. Ondo pasa zure eguna!



Zorionak, **Jakes**, larunbatean 8 urte egin zenituelako. Muxu handi bat Elene, Markel eta Jonen partez.



Zorionak **Intza eta Beñat** gaur 9 urte betetzen dituzuelako. Primeran ospatuko dogu asteburuan! Patxo bana maiztia zaituztegun guztian partez!

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€.  
Argazki bikoitza: 7€.  
Hirukoitza: 9€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3'50€.  
Argazki bikoitza: 6€.  
Hirukoitza: 8€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.



**CORDON VILARCHAO**

San Roke, 7 behea  
Pol. Glaso - Glasopo kalea, 18 - 25 eta 26 moduloa  
Tel. 943 740 570

**DEKORAZIOA**

Karpeta eta berrak estaldura  
Zaluzak ezartzea  
Lakadura: egur, aluminio PVC.  
Printura orokorra

GRUPO  
RIVALAN

**Ferpi**

**modak**

San Bartolome 38  
Elgoibar  
Tel.: 943 740 815

Datorren astean,  
txartel hau  
aurkeztu ezker,  
%10eko deskontua  
HONGO markako  
produktuetan.








**i**

**ESTOPAERI**  
**PILATES ZENTRUA**  
San Roke kalea 30, 7 behea

ASTEBURUETAKO JARDUERA BEREZIAK

- Urriak 30: Ateak irekitzeko eguna. Eialdeko dantzak 19:00etatik 20:30era (Fatima Hazine-Bacha rekin)
- Azaroak 7: Masaje thalondarren talerra. 9:00etatik 14:00etara
- Azaroak 7: Aero-Yoga talerra (Nari Malerarekin)
- Azaroak 28: Aero-Yoga talerra, mala guztientzat (Anya Yogarekin)
- Urtailean, ikastaro bereziak pilates irakasten duten monitoreentzat lesioen tratamendua, elementu osogaien erabilerara.

Izena emateko: 635 199 151 Natalia

## 30 BARIXAKUA

**17:00** Arima iluntzea: Haur Hezkuntzakoentzat mozerro tailerra. 18:00etatik aurrera, Sorginaren bila jolasa LHko haurrentzat. Mendaroko Goñati pilotalekuan. Antolatzaileak: Ludoteka eta Gaztelekua, Udalaren laguntzaz.

**19:00** Pala txapelketa mistoko finala. Kalegoen Plazan. Olatz-Igor/Lara-Julen

## 31 ZAPATUA

**09:00-14:00** Baserriko produktuen salmenta. Kalebarren plazan.

**10:30** Elgoibarko eskulangileen erakusketa. Lekueder parkean.

**11:00** Irakurketa taldea. Elgoibarko Sutegixa gazte txean.

**11:00** Pintxoien salmenta. Kalebarren plazan. Elgoibarko Kalamua, Herri Eskolako Guraso Elkarte

**Eguerditik arratsaldera**, Ganadu erakusketa. Aita Agirre plazan.

**12:00** Kale kantariak. Kalegoen plazatik hasita.

**12:00-14:00** Talo tailerra umeentzat. Kalebarren plazan.

**15:00** Kale kantarien bazkaria. Maalako parkean.

**17:00-19:30** Kantuak eta dantzak. Antolatzailea: Elgoibarko Kale Kantariak. Maalako parkean.

## 5 EGUENA

**17:00** Ipuin kontalaria: Iraitz Lizarraga. *Luzia espia*. 17:00etan HH5 eta 17:30ean LH 1-2. Gotzon Garate Udal Liburutegia.

## 6 BARIXAKUA

**17:00** Umeentzako ikuskizuna: *Irri herri, Anitz!* Herriko Antzokian. Antolatzailea: Elgoibarko Izarra.

**18:30** Erakusketa. Egur arte tailerreko ikasleen margolanak. Astelehenetik larunbatera 18:30etik 20:30era. Kultur Etxeko erakusketa gelan. Azaroaren 15era arte.

**22:30** *Searching for Sugar Man* dokumentala, Elgoibarko Sutegixa gaztetxean.

**23:00** Kontzertua: Perlak. Kultur Etxeko sotoan. Antolatzailea: Sinüose.

## Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

### Guardiak

#### 09:00 - 22:00

30 Barixakua ETXEBERRIA

31 Zapatua FERNANDEZ

1 Domeka FERNANDEZ

2 Astelehena YUDEGO

3 Martitena

ORUESAGASTI

4 Eguaztena

BARRENETXEA

5 Eguena IBAÑEZ

6 Barixakua

GARITAONANDIA

#### 22:00 - 24:00

Astelehenetik igandera

GARITAONANDIA

#### 24:00 - 09:00

ELORZA (Eibar)

Juan Gisasola, 18

943 206 100

\* Fernandez:

Herriko enparantza 4,

Garagartza (Mendaro)

Tel.: 943 756 142

\* Ibañez: Rekalde, 1

(Soraluze)

Tel.: 943 751 638

\* Oruesagasti:

Kalebarren, 9 (Soraluze)

Tel.: 943 751 384

I. URTEURRENA

*Jose Mari*

*Agirregomezkorta Ibarluzea*



2014ko urriaren 31n hil zen, 86 urte zituela. Haren homenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, urriak 31, arratsaldeko 19:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***Urtebete pasa da gure artetik joan zinela,  
baina betirako izango zara gure bihotzean.***



## Zinea (Herriko Antzokian)

## 'Un dia perfecto'

30 Barixakua, 21:30  
31 Zapatua, 19:00/22:15 (VOS)  
1 Domeka 19:00  
2 Astelehena 21:30

## 'Magiaren etxea'

1 Domeka, 16:30 (Euskaraz)

## 'Eden'

5 Eguena, 21:30

## Irailean jaiotakoak

**Lokman Boukhanfra**  
2015-09-22

**Garazi Larrañaga**  
2015-09-28

## Irailean hildakoak

. **Consuelo Ines Garcia**

85 urte, irailak 1

. **Andresa Izagirre Badiola**

91 urte, irailak 2

. **Lourdes Leiaristi Etxeberria**

93 urte, irailak 11

. **Begoña Ibarluzea Arano**

73 urte, irailak 14

. **Jose Kortaberria Ansola**

78 urte, irailak 14

. **Patricia Trojaola Markaide**

89 urte, irailak 14

. **Eugenia Heriz Unzueta**

95 urte, irailak 18

. **Jose Antonio Zuazubizkar Murua**

86 urte, irailak 21

. **Segunda Ansola Zigorraga**

89 urte, irailak 29



## Blanca Maria Belaustegui Zuazo

2015eko urriaren 25ean hil zen, 60 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



## ETXEBERRIA tanatorioa

Hileta zerbitzua osoa eta 24 ordukoa

**KUTXAK, TRASLADOAK ETA KOROAK.**  
**NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI ZUZENDURIKO ZERBITZUAK.**  
**ERIETXE ZENTRUETAN ZERBITZUAK**

Santa Klara, 14 - 20870 ELGOIBAR  
Telefonoak:  
943 741 327 (24 orduz)  
Sakelekoak: 635 756 295 / 629 635 203  
[www.funerariaetxeberria.com](http://www.funerariaetxeberria.com)



Manu Sanchez

Unai Villena



**P**oemak ernaltzen ari zitzaizkion barnean; nabari zuen sentipena ez zegoen gelditzerik. Bazetozen tropelean, eta itsumustuan eztanda egingo zuten. Barruan zeramatzan hitz-sortak bizirik irtengo ziren bere errailetatik, bola eginda azala zeharkatu eta munduratu. Urdailetik, bizkarretik eta paparretik kanporantz aterako zitzaizkion bortizki, eta inguruan barreiatuko

ziren, gaua testigu bakar, bera dardarka utzita. Aurretik ere gertatua zitzaion: bazetozela igartzen zuenean, saihestezina zen haien etorrera. Pentsatze hutsak aurretiaz gogo biziz dararazten zuen, hitzez erditzea mingarria izango zela jakinik ere, hitz haiek jaso eta papereratzean mina plazer gordin bilakaturik gozatuko zuela ondo baitzekien. Durduzaz eta irrikaz dardarka, urak bustitako gremlin txikia balitz bezala sentitzen zen poeta, hastear zegoen gauaren zain, piztu berriako farolaren argiei so. Bazetozen.

*“Loreak zauria irekita behar omen du bizirauteko”*

## LAN DEIALDIA

Debarreneneko mekanizazio enpresa batek mekanizatzailea behar du CNC mekanizazio zentroan aritzeko, esperientziaduna Fagor eta Fanuc kontrolen programazioan.

Harremanetarako telefonoa: 943 744 358

Bonuak  
agortu arte!!!

# TXANKAKUA

## ELGOIBAR 2015 AZAROA

50€-ko erosketa  
40€-ren truke.



### EROSKETA BONUA

#### Baldintzak:

- Baliagarria 2015/11/02tik 2015/11/30era arte.
- Elgoibarren erroldatuta daudenentzat.
- Bonu bat NAN (helbidea indarrean izan beharko da) edo erroldatze bakoitzeko.
- Bonua soilik Txankakuako dendetan trukatu ahal izango da.
- 100€ arteko bonuak meta daitezke.
- Gutxienez, 25€-ko erosketa egin behar da.
- Bonuak azaroaren 2tik 13ra erosi ahal izango dira Rural Kutxan.



EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA  
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONOMICO Y COMPETITIVIDAD

ELGOIBARKO UDALA

# LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



## Abuztuan irekita

### ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA

### ETENGABERO ORDUTEGIA



Astelehenetik ostiralera:

8:00etatik 22:00etara

Zapatuetan:

10:00etatik 14:00 etara

**Eibarko  
Dendarien Elkarte**  
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN  
TXARTELAREKIN ORDAINDUZ  
Galdetuiguazu!



#### Doctor **Antonio Murillo**

Hezur Birsorkuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Uleideko Unibertsitatea eta Madril.**  
Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Aifontso X.a Unibertsitatea. Madril.**  
Implantologia Masterreko Irakaslea. **Uleideko Unibertsitatea.**  
Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamanca Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Instituzioetako Irakasle gonbidatua. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.**

#### Doctora **Ainhoa Zulueta**

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. **Leongo Unibertsitatea.**  
Diplomatua Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua. **Aurtran Institutoa, Bartzelona.**  
Etengabeko Formakuntza. **New York-eko Unibertsitatea.**  
Oklusioan Graduondoa. **Anibal Alonso Doktorea.**

#### MUTUAK ETA ASEGURUAK

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMO, SANTA LUCÍA, PREVIDA BILBAINA, AEGONSTONEBRIDGE, AVANTSAIUD, PADI...  
Galdetuiguazu!



**IRAZABAL**

clínica dental

**FINANTZIAZIO BEREZIA**

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com